

IGNAZIO OMAETXEBARRIA
EUSKARA BARRUTIK
Estudios de lingüística vasca

1. Liburu honen jatorria

I. Omaetxebriak euskarari buruz idatzitako artikuluen bilduma da liburu hau. *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología vasca* (1959) du Omaetxebarriak bere bizitzan euskarari buruz liburu forman argitaratutako liburu bakarra. Horren azpititulua apal eta guzti, euskal aditzaren lan sistematiko trinkoa da: analisi teorikoa eta paradigma, euskarazko testu klasikoen antologiarekin aberastua. Beste obra historiko bat izan zuen asmotan eta esku artean urte askotan, 1947tik aurrera behintzat: *Jalones cronológicos en la historia del euskera* titulua eman ziona; baina burutu ezin eta “Vascuence y Romance” izeneko artikulua moduan *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen 1886an: artikulua mamitsua, baina burutu gabea.

Horiez gain, aldizkaritako erreseina eta artikulutan eman zizkigun Omaetxebarriak euskararen inguruko bere ikerketen eta gogoeten emaitzak. Hainbat aldizkaritan argitaratu zituen horiek: *Euskera*, BRSBAP (*Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*), AIA (*Archivo Ibero-Americano*), *Arantzazu*, *Jakin*, *Cantabria Franciscana*, *Oñate*. Funtsean horiek bildu eta jaso ditu, sailkatuta, liburu honek; ere berean jaso eta integratu ditu, gehienbat oharretan, Omaetxebarriak gai horiei buruz bere artxiboan argitaratu gabe utzitako oharrak, apunteak eta bestelako eskuizkribu landuagoak.

Euskarari buruzko artikuluen bilduma honen aurretik beste hiru bilduma argitaratuta daude, Omaetxebarriaren bestelako artikulua biltzen diztutenak, eta hura hil ondoren argitaratuak: *Arantzazu izena. Evocación franciscana y proyección misionera* (2001), *Franciscanos Misioneros Vascos. Biografías y semblanzas* (2001) eta *Los Franciscanos en Euskal Herria. Retazos de historia* (2002). Arantzazu argitaletxeak eman zituen horiek argitaratu; oraingo hau Euskaltzaindiak argitaratu nahi izan du, “Euskaltzainak” sailean, Omaetxebarria bera euskaltzain urgazle izan zelako. Eskerrik asko erakundearen zuzendaritzari.

2. Liburuaren edukia

Lau sailetan sailkatu ditugu bildumako artikulua:

I. *Euskara. Diacronía e historia*, bereziki euskararen historiaren inguruko gaiak jasotzen dituen. Bertan, inoren zenbait obrari egindako erretzentsio kritiko iradokiorrez gain, bi seinalatu nahi nituzke bereziki: “Vascuence y romance” gorago aipatua (1986) eta “El vascuence de Fray Juan de Zumárraga” (1948).

2. *Antroponimia y Toponimia*, euskarazko onomastikari (lagun- nahiz leku-izenei) buruzko monografiak, beti ere ikuspegi historikotik aztertuak eta garaiko testuinguru historikoari lotuak. Horietan “Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos” azpimarratuko nuke, *Homenaje a Don Julio de Urquijo e Ybarra* liburuan argitaratua (1949).

3. *Gramática: Declinación y conjugación*. Hiru artikulua dira, eta horietan nabarmentzekoena agian “Observaciones al proyecto de gramática del euskera literario por la Acad. de la Lengua Vasca” (*Euskera*, 1964).

4. *Euskara: Lengua y Cultura*. Nagusia, hizkuntzaren eta bereziki euskararen izaera eta balio antropologiko eta kulturaleri buruzko hitzaldi luzea –“Razones y motivos que nos deben animar a trabajar por el euskera” (1961)– eta beste zenbait artikulua, euskal lexikoaren normalizazioaren eta kultura modernoari egokitzearen arazoei buruz.

Omaetxebarriaren idazlanez gain, eta editoreak idatzitako bildumaren sarrerarekin batera, Adolfo Arejitak eskaini digu hitzaurrea, non Ignazio Omaetxebarria hizkuntzalari eta euskalariaren senblantza egokia eskaintzen baitigu. Eskerrak berari! Bestalde, Paulo Agirrebaltzategik laburbildu du gure autorearen pentsaera eta sentiera euskarari buruz: berori aztertzeko, lantzeko eta erabiltzeko arrazoi eta motibazio psikologiko, antropologiko eta kulturalak. Motibazio horiek iradokita asmatu dugu bildumaren titulua ere: *Euskara barrutik*, bi eratarira irakur daitekeena: “Euskara, barrutik” edo “Euskara(ren) barrutik”.

Interesgarria da Omaetxebarriak bere idazlanetan erabili zuen bibliografia ezagutzea. Sarritan osatu gabe ageri da hori, batez ere eskuzko apunte argitaragabeetan. Horregatik berak aipaturiko bibliografia osoa batu eta osatuta eman dugu.

3. Omaetxebarria euskal idazle Gernikako beste frantziskotar batzuekin

Bildumako idazlan gehien-gehienak gaztelaniaz idatzita daude. Baina Omaetxebarria euskal idazletzat ere hartzekoa dugu, bere produkzio polifazetiko eta ugarian gehienbat erdara erabili bazuen ere (greziera ere bai inoiz). Bildumaren sarreran ikus daiteke horren euskarazko lanen berri: Liturgiako liburuxkak, testu eta azalpen ugariko “Eleizegutegia” (1936), *Kristau dotrina bertsotan*, *Arantzazu* aldizkariko “Euskal Atala” izeneko saila, olerkiak, kanta-testuak, etab. Horietako batzuk *Arantzazu izena* liburuan bilduta daude.

Omaetxebarria euskal idazlearen aipamena ekarri nahi izan dut hona, beste zerbait ere nabarmentzekotan hemen Gernikan. Frantziskotarra izan zen Omaetxebarria, Joan Ruiz de Larrinaga eta Anjel Uribe historialari gernikarrak bezala –beroriek eta Zelestino Solaguren gernikarrak egin digute, egin ere, Euskal Herriko frantziskotarren historia, Omaetxebarria bera alde batera utzi gabe–, eta frantziskotarra zen Luis Villasante euskalari eta idazle gernikarra ere. Denontzat hain ezaguna eta omen handikoa dugun Villasanterekin batera, oroitzapen eta omenaldi berezia egin nahi diet, hain zuzen, hemen beste bi euskal idazle gernikar frantziskotar ezezagunagoi.

Izan ere jakitekoa da, bi gernikar izan zirela aro modernoko lehen euskal idazle frantziskotarrak, hemen hurbil-hurbileko Ereñoko Eusebio Bengoarekin eta Antonio Arruti poeta oikiarrarekin batera, XX.aren hasieran: Joan Ruiz de Larrinaga (1876-1954) eta Eulalio Amunategi (1876-1937). **Larrinagak** *Ibaizabal* aldizkarian eman zituen idazlan laburrak, “Arambeaskoa” ezizenarekin (1902-1903); **Amunategik** *Apostolado Franciscano* aldizkarian idatzi zituen bere euskarazko idazlanak, “Altzibar” bigarren abizenarekin (1919-1920).

Aintzindari hurbilekoak, bere herritarrak eta bere frantziskotar familiakoak, izan zituen, bada, Villasante euskal idazle gernikarrak: Larrinaga, Amunategi eta Omaetxebarria.

Paulo Agirrebaltzategi

Donostia, 2016-05-26